

Urdazubiko Monasterioa

Urdazubi (Urdax), en la frontera misma de las dos Navarras históricas (la Alta y la peninsular), completa la trilogía monástico-devocional del Pirineo navarro, junto con Ntra. Señora de Orreaga (Roncesvalles) y San Miguel de Aralar. Si los monasterios y señoríos benedictinos del reino no fueron pocos, la Orden premonstratense tuvo aquí su único monasterio, bien caracterizado con rasgos propios.

Premontretarrak ziren Urdazubiko monje-kalonjeak; horrela, Prémontré herritik hartutako leku-izenarekin sortuak (1121), eta klunitar (909) eta zistertarren ondoren (1098) jaiotakoak. Beraien sortzaile eta lehen burua Norbert Xanten-ekoa (c. 1080-1134) izan zen, eta nolabait ere aurreko monjeen monasterio-sareak utzitako hutsune pastoralak hobeki betetzeko antolatutako Ordena izan zen premontratarrena (Erromaren onarpen ofiziala 1126an eskuratu zuen).

Ordenaren funtsa eta zabalkundea

Norbert-ek Magdeburgoko Artzapezpikutzat hartu behar izan zuenean, ordeko bat jarri zuen kalonje haien gobernurako: Hugo Fosses-ekoa (c. 1093-1164). Berau izan zen Prémontréko Abade 36 urtetan. Bertako gobernuaz arduratzen zela, inguruko fundazio berriei Kalonje-etxe Erregularren sarea Ordena bihurtzera iritsi zen (Kapitulu Jeneralarekin eta Buru orokor bakarrarekin).

Europan, sekulako arrakasta izan zuen Ordena berri honek, eta XII. mendeko azkenetan 600en bat Etxe izatera iritsi ziren, Kalonje-Etxe berriak irekita eta/edo lehendik zeuden batzuk erakarrita (hauxe da Urdazubikoaren kasua ere). San Agustinen Erregela hartu eta moldatuta eratu zuten monasterioetako biziera eta handik kanporako beren lana.

Premontreko Ordenak, sortu eta berehala batez ere, monasterio bikoitzak izan ohi zituen, alde batetik gizonezko kalonjeak zituena eta, bestalde, emakumezkoen monasterioa. Laster, gizonezkoen Ordenatik at, mojak hainbat Etxe izan zituzten beren aldetik, beregaintasun osoarekin.

Norbertar hauek (premontretarrek, alegia) beren espiritualitatean bi balio edo zeregin izan zituzten: otoitza (hau da, norberaren eta taldearen errezo eta gogoeta, Liturgia barne) eta pastoralala (hau da, gizartearen zerbitzurakoak: herriko eliztar, gaixo, erromes eta ahulen ongiletzakoak zainduz). Monasterioko eta lekuko premiek agindu zuten beharrezko oreka gordetzen, eta halakorik behar zenean erreformaldakuntzak egiten. Urdazubin ere bai.

Batzuetan pisu handiko lanak hartu zituzten inguruko auzo eta herriak eraiki eta antolatzen; ondoren, beroriek sortuta, ordenamendu soziala eman eta finkatu, eta azken buruan gutzia jaurerri baten barruan bildu eta gobernatzeko, betiere garaian garaiko eredu sozialen arabera, Erdi Aroko feudalismotik Aro Modernoaren azkenetaraino. Alde sozial horren lekuko esanahitsua da, adibidez, herri germaniarren hedapenean *Ostsiedlung* deitua (Eki Europako kolonizazio erdi-arotarra). Tamaina apalagoan Urdazubin ere egon zen lurrak urratu eta lantzeko egitasmorik.